



EUSKO JAURLARITZAREN LANA ESKUALDEETAKO KOMITEAN

2008KO BALANTZEA



Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 27an

AURKIBIDEA

Orrialdea

Sarrera	3
AHOLKULARITZA LANA	
1. Irizpen-proiektuak Eusko Jaurlaritzaren sailetara helaraztea	5
1.1. Irizpenak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakundeen zerrenda	
1.2. Irizpenen gaien zerrenda	
2. Eusko Jaurlaritzako sailen jarrera	8
2.1. Sailen erantzun-maila	
2.2. Sailen erantzun-mota	
3. Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak	10
3.1. Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak	
3.2. Onartutako zuzenketen ehunekoa	
4. Beste eskualdeek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua	12
5. Eusko Jaurlaritzak landutako irizpen bat	17
6. Irizpenak prestatzeko beste tresna batzuk	20
7. Subsidiaritasunaren azterketa	23
BESTE EKINTZA ETA JARDUERA BATZUK	
8. Topaketak Eskualdeetako Komitearen presidentearekin	26
9. Eusko Jaurlaritzaren hitzaldi bereziak Europako Komisarioen aurrean	28
10. Ezohiko bilerak: alkateen topaketa (ALDE taldea)	31
11. Osoko bilkuraz kanpoko jarduerak: OPEN DAYS	32
ONDORIOAK	34
I. eranskina: Irizpen-proiektu, bidalketa eta zuzenketa guztien	40

zerrenda

EUSKO JAURLARITZAREN LANA ESQUALDEETAKO KOMITEAN 2008. URTEKO BALANTZEA

Sarrera


Eskualdeetako Komitea Europar Batasuneko aholkularitza-organoa da, Maastrichteko Itunak 1992an sortua. 1994an abiatu zen, eta orduetik hona areagotu egin da bere aholkularitza-boterea eta eragina, bai Erkidegoko legerian bai Europako agenda politikoaren arazorik larrienak konpontzerakoan ere.

Batasuneko 27 herrialde kideetako 344 eskualde-presidente, alkate, zinegotzi, aholkulari eta abar dira bertako partaideak, eta beren zeregina da ordezkatzeko dituzten herritarren ikuspuntuak eta interesak Bruselan defendatzea. Horretarako, aurrez lan egin beharra dago; hau da, batez ere Gobernuako sailen iritziak eta Europako legeak aldatzeko proposamen zehatzak bildu, eta ondoren Bruselan defendatu behar dira.

Hauxe da Eusko Jaurlaritzaren barne-prozedura:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik (Lehendakaritza) irizpenak bidaltzea Gobernuaren beste sailietara, beren organismo autonomoetara edo EUDELera.
- Sailen iritzia edo jarrera Lantaldearen irizpenei buruz.
- Zuzenketa zehatzak aurkeztea; horretarako, beste eskualdeen babesa jaso behar da.
- Lobby-a eta zuzenketen defentsa Bruselan.

Prozedura horri buruzko eskema bat erakutsi aurretik, esan dezagun lehendakaria dela Euskadik Lantaldean duen kide titularra, eta ordezeko kidea Iñaki Agirre Arizmendi, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, 2008ko urtarriletik hona.



2005eko amaieran baimena eman zen Eskualdeetako Komitearen osoko bilkuretan euskara erabiltzeko, eta ordutik hona hizkuntza horretan izan dira Eusko Jaurlaritzak bertan izan dituen hitzaldi guztiak.

Europako araudiari zuzenketak aurkezteaz gain –horixe da parte hartzeko eta Euskadiren jarrera Erkidegoko erakundeetan ezagutarazteko bide nagusia–, Euskadik beste jarduera garrantzi batzuk ere egin ditu Eskualdeetako Komitean.

1.- Irizpen-proiektuak helaraztea Eusko Jaurlaritzaren sailetara

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak, Iñaki Agirre Arizmendik, **77 iritzi-eskaera** helarazi dizkie Eusko Jaurlaritzaren sailei, Eskualdeetako Komiteak bidalitako **64 irizpen-proiekturi** buruz¹.

Taula honetan ikusten da iritzi-eskaeren banaketa, Osoko Bilkuren arabera:

Osoko Bilkuraren zk.	Datak	Iritzi-eskaeren kopurua
73	2008ko otsailak 6-7	14
74	2008ko apirilak 9-10	15
75	2008ko ekainak 18- 19	10
76	2008ko urriak 8-9	16
77	2008ko azaroak 26-27	19

Eranskinean dator 2008. urtean aztertutako irizpen-proiektuen zerrenda.

Iritzi-eskaerak Batzordeetan:

Batzordeen bilerak

Iritzi-eskaeren kopurua

KONST

3

Konparatuz gero, 2007an baino askoz irizpen gehiago eman dira 2008an. Hain zuzen ere, aurreko urteko 43 irizpenetik 64ra igaro gara.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako sailei egindako iritzi-eskaerak dezente ugartu dira: aurreko urteko 59tik 77ra igaro gara 2008an.

1.1 Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakundeen zerrenda.

Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde hauek jaso dituzte 77 iritzi-eskaerak:

Sailak eta erakundeak	Iritzi-eskaeren kopurua
Lehendakaritza	14
Lehendakariordetza	1
Ogasuna eta Herri Administrazioa	6
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	8
Barne Arazoak	3
Industria, Merkataritza eta Turismoa	11
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	8
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	5
Osasuna	2
Kultura	6
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	4
Garraioa eta Herri Lanak	3
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	4

EEE	1
EUDEL	1
GUZTIRA	77

2008. urtea aurrekoarekin konparatzen hasita, kontsultatutako sailak 2007an kontsultatutakoen berdintsuak direla aurkituko dugu.

1.2.Eusko Jaurlaritzako sailen gaien zerrenda (horien gainean eskatu zuten-eta iritzia).

Taula honetan datoz sailetara bidalitako irizpenen gaiak.

Eusko Jaurlaritzako sailen gaiak	Iritzi-eskaeren kopurua
Nekazaritza	4
Urak	1
Barne-arazoak	2
Gizarte-ongizatea	4
Lehiakortasuna eta industria-politika	1
Kontratazio publikoa	1
Garapenerako lankidetzak	1
Lurralde arteko lankidetzak	1
Kultura	2
Kirola	1
Giza eskubideak	2
Hezkuntza	5
Enplegua	5
Energia	5
Finantzak	1
Fiskalitatea	1
Immigrazioa	4

Europako integrazioa eta erakundeak	10
Ikerketa eta garapena	4
Gazteria	3
Ingurumena	3
Eskualde-politika	2
Eskualde- eta kohesio-politika (FEDER)	1
Hirigintza- eta etxebizitza-politika	1
Aurrekontua	2
Babes zibila	1
Portuak	1
Kanpo-harremanak	1
Osasun publikoa	2
Informazio-gizartea	2
Telekomunikazioak	1
Garraioak	2
GUZTIRA	77

ELek dibertsifikatu egin ditu bere irizpen-proiektuetako gaiak: 2007an 27 gai desberdin izan ziren; 2008an, berriz, 32.

2.- Eusko Jaurlaritzako sailen jarrera

2.1. Sailen erantzun-maila

Iritzi-eskaerei emandako erantzunen kopuruari dagokionez, erantzun-maila oso ona izan da. Hain zuzen ere, aurtengo 77 iritzi-eskaerek 69 erantzun jaso dituzte, hau da, **erantzun-maila % 90ekoa** izan da.

Taula honetan zehazten da gehiago:

Sailak eta erakundeak	Bidalitako eskaerak	Jasotako erantzunak	Betetze-maila
Lehendakaritza	14	14	% 100
Lehendakariordetza	1	1	% 100

Ogasuna eta Herri Administrazioa	6	5	% 83
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza	8	5	% 62
Barne Arazoak	3	3	% 100
Industria, Merkataritza eta Turismoa	11	10	% 91
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	8	8	% 100
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	5	5	% 100
Osasuna	2	2	% 100
Kultura	6	5	% 83
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	4	3	% 75
Garraioa eta Herri Lanak	3	3	% 100
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	4	3	% 75
EEE	1	1	% 100
EUDEL	1	1	% 100
GUZTIRA	77	69	% 90

Kontsultatutako sailen betetze-maila, oro har, oso ona izan da. Era honetan neurtzen dugu betetze-maila:

- **Betetze-maila guztira:** 9 sail:
 - Lehendakaritza
 - Lehendakariordetza
 - Barne Arazoak
 - Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
 - Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa
 - Osasuna
 - Garraioa eta Herri Lanak
 - EEE
 - EUDEL
- **Betetze-maila ertain-handia:** 6 sail:
 - Ogasuna eta Herri Administrazioa;
 - Industria, Merkataritza eta Turismoa
 - Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza
 - Kultura
 - Ingurumena eta Lurralde Antolamendua
 - Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

2.2. Sailen erantzun-mota


Iritzi-eskaerari erantzuteko orduan, sailek hiru erantzun-mota eman ditzakete: irizpenarekin ados egotea, zuzenketa zehatzak aurkeztea, edo testuari buruzko iruzkin orokorrak egitea. Jasotako 69 erantzunetatik, hauxe izan da emaitza:

- **Adostasunezko 41** erantzun, hau da, jasotako erantzun guztien % **59**.
- **28** erantzun **zuzenketekin**, hau da, sailek bidalitako erantzun guztien % **41**.

Aurreko urteetan ez bezala, irizpen-proiektuekin ados dauden erantzunak gehiago izan dira zuzenketak proposatu dituztenak baino. Hain zuzen ere, adostasunezko erantzunak % 4 hazi dira aurreko urtearekiko.

Grafiko honetan ageri dira lortutako emaitza zehatzak:

Grafikoa: sailek emandako erantzun-motaren bilakaera 2007 eta 2008 artean



3.- Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak


Eusko Jaurlaritzako Sailek **guztira 93 zuzenketa** egin dizkiete Eskualdeetako Komitearen irizpen-proiektuei. Hala, 93 zuzenketa horietatik, **82k** behar hainbat babes

lortu dituzte **aurkeztu** ahal izateko, nahiz osoko bilkuretan nahiz batzordeetan, eta **70 onartu** dira.

Taula honetan datoz zuzenketak proposatu dituzten sailak, eta haien emaitza:

Kontsultatutako saila edo erakundea	Egindako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
Lehendakaritza	19	16	14
Ogasuna eta Herri Administrazioa	4	3	2
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza	2	2	2
Barne Arazoak	10	10	10
Industria, Merkataritza eta Turismoa	10	10	10
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	17	14	10
Kultura	4	4	4
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	14	10	9
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	2	2	2
Garraioa eta Herri Lanak	3	3	3
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	8	8	4
GUZTIRA	93	82	70

Grafikoa: 2007 eta 2008 artean idatzi, aurkeztu eta onartutako zuzenketen bilakaera



3.1 Onartutako zuzenketen ehunekoa

2008an onartutako zuzenketen ehunekoa handiagoa izan da aurreko urtean baino (2008an % 85, eta 2007an % 79). Ehuneko handi hori aurreko urteetakoaren antzekoa da (2006an % 87). 2008an aurkeztutako hamar zuzenketatik ia zortzi onartu dira.

4.- Beste eskualdeek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua

Euskadik bere zuzenketak beste eskualde batzuetara bidaltzen dituen bezala babesa eskuratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste eskualdeetako zuzenketak jasotzen ditu, aurkeztu ahal izateko babesa bilatzen dutenak, ondoko taulak erakusten duen moduan.


2008an zehar, **396 zuzenketa** bidali dizkigute Espainiako 14 eskualdek, ALDE Talde Politikoak eta Austriako Vorarlberg eskualdeak, gure babesa eskuratu eta elkarrekin aurkeztu asmoz. Horietatik, **Euskadik 208ri eman die babesa**. Hau da, **Euskadik jasotako zuzenketen % 51 ingururi eman die babesa**.

Zuzenketen bidaltzailea	Jasotako zuzenketa-kopurua	Euskadik babes emandako zuzenketa-kopurua
<p>Andaluzia (Nekazaritza: 37; Giza Eskubideak: 1; Hezkuntza: 16; Immigrazioa: 16)</p>	70	5
<p>Aragoi (Babes zibila: 11)</p>	11	0
<p>Asturias (Nekazaritza: 2; Kirola: 6; Energia: 7; Enplegua: 6; Lisboako Estrategia: 2; Ingurumena: 2)</p>	25	22
<p>Balearrak (Lehortea: 12; Kultura: 5; Eskualde eta Kohesio Politika: 1; Lisboako Estrategia: 1; Europako Integrazioa: 1)</p>	20	8
<p>Kanariak (Hezkuntza 2; Garapenerako Lankidetzak: 2; Immigrazioa 5; Ingurumena: 2; Eskualde eta Kohesio Politika: 16; Kanpo Harremanak: 2; Teknologia 2; Garraioak: 7)</p>	38	30
<p>Katalunia (Kultura: 4; Europako Integrazioa: 5; Lehortea: 3; Garraioak: 2)</p>	14	9

Gaztela eta Leon (Lisboako Estrategia: 2)	2	2
Gaztela-Mantxa (Lehortea: 5)	5	0
Extremadura (Nekazaritza: 24; Hezkuntza: 3; Lehortea: 3)	30	24
Galizia (Nekazaritza: 29; Kultura: 4; Garapenerako Lankidetzak: 5; Hezkuntza: 1; Energia: 3; Enplegua: 5; Garraioa: 3; Babes Zibila: 6; Eskualde eta Kohesio Politika: 1)	57	33
Madril (Kultura: 2; Immigrazioa: 1; Lisboako Estrategia: 12; Gazteria: 3; Garraioak: 1)	19	10
Murtzia (Nekazaritza: 3; Garapenerako Lankidetzak: 7; Immigrazioa: 8; Lehortea: 1)	19	12
Nafarroa (Osasuna: 1)	1	1
Valentzia (Eskualde eta Kohesio	20	6

Politika: 4; Energia: 8; Immigrazioa: 4; Lehortea : 3)		
Vorarlberg (Austria) (Lisboako Estrategia: 1)	1	1
ALDE (Nekazaritza: 17; Kultura: 6; Garapenerako Lankidetzeta: 2; Giza Eskubideak: 8; Enplegua: 2; Hezkuntza: 3; Energia: 11; Lisboako Estrategia: 6; Europako Integrazioa: 5; Gazteria: 2; Garraioa: 2)	64	45
GUZTIRA	396	208

Grafikoa: beste eskualdeetako zuzenketei emandako babesaren bilakaera 2007 eta 2008 artean



Zuzenketa horiei babesak emateko orduan, Eusko Jaurlaritzaren sailletako teknikari espezializatuek laguntzen diote Gasteizko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, bai eta Euskadik Bruselan duen ordezkarietako sektoreko teknikariek ere. Horiek denek beren iritzia arrazoitua ematen dute, Eusko Jaurlaritzak dena delako gaiaren inguruan daraman politikaren arabera, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak balioespen hori helarazten die EKko euskal ordezkariaren sinadura eskatu diguten eskualdeei.

Beste eskualdeetatik jaso dugun zuzenketa-kopurua ikusirik, aztertzeke eta balizko babesak emateko lana handia izan da, baina beharrezkoa da zuzenketa bateratuak aurkezteke, eta horrek agerian jarri eta aintzat harrarazten ditu Euskadiren interesak Europan.

Azterketa honetan azpimarratzekoa da beste eskualdeetatik jasotako zuzenketa asko ugaritu direla eta, ondorioz, baita Euskadik emandako babesak ere, aurreko grafikoan ikusten den moduan. Beste urteekiko izandako gehikuntza horrek (2007an halako bi, ia-ia), hainbat arrazoi ditu: Erkidegoko erakundeek Eskualdeetako Komiteari derrigorrezko gaiez aparte egindako kontsulta ugariagoak, Lantaldeak ekimenezko irizpen gehiago egin izana, eta eskualdeak interesatutako egotea Lantaldearen jardueran, eskualdeko interesak Europan defendatzen dituen ordezkarietako-organoa den heinean.

Taula hori dela-eta, argi utzi nahi dugu eskualde batzuek zuzenketa franko aurkeztu arren ez dutela Euskadiren babesak jaso, hainbat arrazoiengatik: batetik, aurkezpen-epaiegatik; batzuk epea betetako egun berean iritsi direnez, ezinezkoa izan da aztertzea eta erantzun bat garaiz ematea; beste batzuk hizkuntza-gaiak baino ez dira izan, hitz jakin batzuk lehenesten dituztenak baina eraginik ez dutenak EBko beste hizkuntza ofizialetara itzultzeko orduan; eta, azkenik, zuzenketa batzuk Jaurlaritzako sailen iritzien eta gomendioen aurka zihoazen, eta haiei babesak emateak urratu egingo zituen Eusko Jaurlaritzaren politika eta Euskadiko interesen defentsa.



Iñaki Agirre Arizmendi, zuzenketen bozketan Eskualdeetako Komitearen 77. Osoko Bilkuran

5.- Eusko Jaurlaritzak landutako irizpen bat

77. Osoko Bilkura (2008ko azaroak 26 eta 27): Eusko Jaurlaritzak zuzendutako ELren irizpena, gai honi buruz: “*Europako Ikerketa Azpiegituren (ERI) eta Ikerketa Programazio Bateratuaren Zuzenbide Esparrua*”.

Txostengilea: Iñaki Agirre Arizmendi

Aditua: Alberto Fernandez Gonzalez

Eskualdeetako Komiteak Iñaki Agirreri agindu zion eskualdeko eta tokiko erakundeen jarrera idaztea eta zabaltzea Europako Batzordearen ekimen hauei buruz:

- 1.- Batzordearen araudi-proposamena Europako Ikerketa Azpiegituren (ERI) zuzenbide-esparruaz – COM (2008) 467 azkena.
- 2.- Batzordearen komunikazioa Ikerketa Programazio Bateraturantz – COM (2008) 468 azkena.

Txostena egiteko aditu bat izendatu zuten, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko teknologia-zuzendaria, Alberto Fernandez Gonzalez. Harekin koordinaturik aritu ziren lanean Zientzia Politikarako zuzendaria, Alberto Ansuategi Cobo, BIO Fundazioko zuzendaria, Carmen Garaizar, AZTI-Tecnalia eta NEIKER-Teknalia presidentea, Luis Javier Telleria, eta IHOBEko zuzendari orokorra, Xabier Caño.

Eusko Jaurlaritzako sail inplikatuena lankidetzari esker agiri bat idaztea lortu zen; Euskadiren interesei bikain erantzuten die, eta behar bezain irekia da Europako beste eskualdeen eta hirien interesak ere barruan sartzeko. Horren ondorioz, irizpena aldatzeko bost zuzenketa bakarrik jaso ziren, eta gehienak testuari gehitu zitzaizkion.

Irizpena ia aho batez onartu zen osoko bilkuran, aurkako lau boto besterik ez zituen izan eta, beraz, arrakasta handizat har daiteke. Horrekin batera, lobby-lana egin da Erkidegoko erakundeetan –goi mailako bilerak EBko Batzordearekin, Parlamentuarekin eta Kontseiluarekin, bai eta Espainiak EBn duen Ordezkaritza Iraunkorarekin eta Bruselan kokatutako zientzialarien komunitatearekin, eskualdeko eta tokiko erakundeen jarrera zabaltzeko eta EBko araudi berria eragin ahal izateko.

Irizpenaren laburpena

Eskualdeek eta tokiko erakundeek Ikerketa Esparru Europarrean (EEI) duten papera azpimarratzen da, haren politika herritarrengana hurbiltzen baitute, eta hurbilago baitaude bertan diharduten eragileengandik.

Horregatik, eskualdeek paper estrategikoa eduki behar dute EEI indartzeko eta zabaltzeko ekimenetan, eta, era berean, eskualdeek eta tokiko erakundeek izan behar dute lurralde- eta ekonomia-kudeaketaren unitate nagusiak.

Era berean, Europako Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die beharrezko ekimenak har ditzaten eskualdeko eta tokiko agintariei eraginkortasunez eta buru-belarri parte harrarazteko irizpeneko bi ekimenen gobernantzan:

Lehenbiziko ekimenari dagokionez, Eusko Jaurlaritza Erkidegoko lege-esparru bat abiaraztearen alde dago, ikerketa bultzatzen duten bikaintasuneko azpiegiturak sortzea eta ezartzea errazteko Europan. Hain zuzen ere:

- Eskualdeek ere eskubide osoko kideztat parte hartu ahal izatea eskatzen du, estatu kideen, gobernu arteko erakundeen eta hirugarren herrialdeen alboan.
- Estatu desberdinetako hiru eskualdek ERI bat eratu ahal izatea eskatzen du.
- ERIa eta programazio bateratua egiteko eta diseinatzeko lehenbiziko faseetan eskualdeek parte-hartze zuzena eduki behar dutela uste du .
- Eskualdeek pisu handiagoa eduki behar omen dute ESFRIn bide-orriaren garapenean.

- Ondo irizten dio ERIak Ikerketaren Esparru Programaren eta Azpiegitura Funtsen bidez finantzatu ahal izatea, beste finantza-iturri publiko nahiz pribatuez gain.
- ERIen banaketa geografikoak uniformeak izan beharko omen luke EB osoan. Hori indartzeko, instalazio guztiak lotzen dituen sare birtual bat egon liteke.
- Eragileen arteko koordinazioan oinarritutako ekimenak bultzatu beharra azpimarratzen du, beren artean informazioa eta jakintza errazago zabaltzeko, bere onurak biderka daitezzen eskualdeko eta tokiko erakundeen enpresetan, zientzian, irakaskuntzan eta teknologian.

Programazio bateratuari buruzko bigarren ekimenari dagokionez, hauxe dio irizpenak:

- Ikerketa-programa bateratuak bultzatzeko orduan eskualdeek eta tokiko erakundeek duten garrantzia azpimarratzen du, harreman estuagoa baitute tokiko zientzia, teknologia eta enpresarekin, eta, beraz, arlo estrategikoetan dauden lankidetzaren beharrek ere bai.
- Programek Batzordearen babesa edukitzea aipatzen du –akordioak errazteaz gain konpromisoa eta finantza-bideak jartzea–, eta etorkizunean ekimen hori sustatzeko funts propio bat sortu beharra.
- Programa berriak abiarazi aurretik, bai Batasunak bai estatu kideek aukera guztiez baliatu beharko lukete, lehendik dauden nazioz gaindiko politiken eta lankidetzaren artean sinergiak lortzearren.
- Europako I+G+B-ko eragileen koordinazioan eta lankidetzan oinarritutako ekimenak ezarri beharra aipatzen du, koordinazioa "behetik gora" antolatuz, geometria orokorraren eta subsidiarotasunaren printzipioak kontuan hartuz.
- Programa Bateratuko gai nagusiak modu adostuan erabakitzea eskatzen du, eta, horretarako, horrekin lotutako eskumenak dituzten eskualdeak kontuan hartu beharko direla, baita arlo bakoitzarekin berariaz lotutako zientzialariak eta interes-taldeak kontsultatu ere.



6.- Irizpenak prestatzeko beste tresna batzuk

Eskualdeetako Komiteak tresna berri bat abiarazi du, eskualdeko eta tokiko erakundeek parte har dezaten irizpenak egiten: galdera-sortak. Tresna berri horren bidez, ELk irizpenen kalitatea hobetu nahi du, Batzordeko eskualde eta udalerrien parte-hartze aktiboagoa sustatu, eta haien jarrerak integratu, irizpenak prestatzen hasi bezain laster.

Galdera-sorten bidez, gainera, Europan zehar gertatzen ari diren kasu zehatzen adibideak azter daitezke, eta era horretan erabaki daiteke Erkidegoko araudi berriaren ikuspegiak nolakoa izan behar duen, eta nolako eragina izan dezakeen Europar Batasuneko lurraldeetan.

Galdera-sorta horiek txostengileak berak eskatuta prestatzen dira, eta gai eztabaidatu bati buruz edo lurraldean eragin handia duen auzi bati buruz EKek iritzia eman behar duenean egin ohi dira. Txostengileak, era horretan, tokiko eta eskualdeko esperientziak lehen eskutik ezagutzeaz gain, zuzenketa gehiegi aurkeztea saihestu edo murriztu dezake.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak galdera-sorta hauek bete ditu 2008an:

6.1 “Etorkizuneko europar asilo-sistema bateratua”ri buruzko galdera-sorta, 2008ko apirilaren 26 eta 27ko 74. Osoko Bilkuran onartutako irizpena egiteko erabilia

Irizpen honetan, txostengileak informazioa bildu nahi zuen –galdera-sortaren bidez– EKko eskualdeetan, besteak beste, gai hauek hartuta: eskualde edo hiri horietan bizi diren eta asiloa eskatu dutenen kopurua, asiloa eskatzen dutenen eta iheslarien joan-etorria arautzen duen nazio-mailako legeriarik dagoen jakitea, asiloa eskatzen dutenen etorrerari aurre egiteko tokiko edo eskualdeko erakunderik dagoen jakitea, edo integrazioa bultzatzeko luzeko egiturak sortzea .

Galdera-sorta horri erantzuteko, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu zen Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza eta Iheslariak Laguntzeko Euskal Batzordea (CEAR-EUSKADI). Batzorde horrek abiarazten ditu Eusko Jaurlaritzak finantzaturako proiektuak, asiloa eskatzen dutenen eta iheslarien harrera eta integrazioa errazteko, asiloa eskatzen dutenetik –informazioa, harrera eta ostatua–, espedientea izapidetzea onartzen den arte.

Era berean, proiektu horietan aritzen dira beste sail batzuk ere, hala nola, Immigrazio Zuzendaritza, Giza Eskubideen Zuzendaritza eta erakunde pribatuak, lehenbiziko harrera eta orientazioa egiten, jatorrizko herrialdeekin harremanean jartzen, informazioa biltzen, eta, hala balegokio, familia elkartzen.

Galdera-sortari emandako erantzunean argi utzi zen Euskadik ez duela eskumenik asiloari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren arabera estatuaren eskumen eksklusiboak baitira nazionalitatea, immigrazioa, atzerritartasuna eta asilo-eskubidea. Nolanahi ere, asilo-eskatzailen premiei erantzuten dieten GKEen proiektuak finantzatzen ditu Eusko Jaurlaritzak, bere sailen bidez, *ut supra* zehazten den moduan.

6.2 “Maiatzaren 9rako (Europaren Eguna) aurreikusitako ekintzak eta EBko politikei buruzko komunikazioa”ren galdera-sorta, 2008ko ekainaren 18 eta 19ko 75. Osoko Bilkuran onartutako “Europari buruz elkartean komunikatzea” irizpena prestatzeko erabilia.

Ekimen hau “Helburua 2009” Lantaldeak jarri zuen martxan –EKri laguntzeko sortua, EBren politikek eguneroko bizitzan duten eraginaz herritarrak kontzientziatzeko–, maiatzaren 9ko (Europaren Eguna) ospakizunak erabakitzearen, bai eta Europari buruzko informazioaren komunikazio-bideak ere, nola tresna tradizionalak, hala teknologia berriak erabiliz.

Era berean, galdera-sortarekin batera gida bat zihoan, herritarrei Europaren berri emateak dituen abantailak nabarmenduz: informazio objektiboa emanez herritarrak Europaren aukerez eta abantailez ohartzea, Europako erakundeen jardunbidea argitzea, ELko kideei tresnak ematea EBko politikak komunika ditzaten, eta Europako

proiektua hizkuntza xume batera itzultzea, herritarrek ulertzeko modukoa, hizkera teknikorik eta burokratikorik gabea.

Europako Eguna aldarrikatzeko moduari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako Zuzendaritzak honelako ekitaldiak zehaztu zituen: prentsaurrekoak, eraikin publikoetan bandera igotzea, EBri buruzko informazio-standak, gazteak EBra hurbiltzeko kontzertuak aire librean, eta abar; denak ala denak Maiatzak 9 Kultura Elkarateak antolatuak, Euskal Erakundeen partaidetzarekin. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako arduradunek prentsan argitaratzeko iritzi-artikuluak idatzi dituzte, eta irratiko eta telebistako programetan zabaldu dute maiatzaren 9ko ekitaldien berri.

EBri buruzko informazioa Euskadin zabaltzeko moduei dagokionez, ohiko bideez gain, "12 Izar" izenekoa jarri da martxan; EBri buruz Internet bidez informatzeko zerbitzua da, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak kudeatua, eta ataletan sistematizatua –adibidez albisteak edo legeria–, eta materiatan –adibidez nekazaritza edo kirola–. Zerbitzu hori eskura dute Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES) osatzen duten erakunde guztiek, adibidez herri-administrazioek, enpresek, unibertsitateek eta herritarrek.

6.3 "Tokiko eta eskualdeko erakundeek zabalkunde-prozesuan parte hartzearen balio erantsia"ri buruzko galdera-sorta, 2008ko azaroaren 26 eta 27ko 77. Osoko Bilkuran onartutako irizpena prestatzeko erabilia.

Irizpenaren txostengileak tokiko eta eskualdeko erakundeengana jo zuen, informazioa biltzeko estatuaz azpiko agintarien esperientziei eta jardunbide egokiei buruz, bosgarren zabalkundearen aurrean: Erkidegoaren ondarea onartzearekin lotutako proiektuak, Kopenhageko irizpideak betetzea, edo aurretxikitzeak tresnak.

Honako hauek dira helburuak: zerrenda bat egitea hurrengo zabalkunde eta aurretxikitze prozesuetan erabiltzeko jardunbide eta gidalerro politiko onenekin –adibidez mugaz gaindiko lankidetzari buruz edo baliabideen eraginkortasunari buruz–, herrialde hautagaietako eta EBko egungo herrialde kideetako lurralde-agintarien arteko lankidetzaren indartzea, eta herrialde hautagaien eta aldameneko herrialdeen tokiko eta eskualdeko demokraziaren garapen iraunkorra bultzatzea.

Galdera-sortari erantzuteko, Eusko Jaurlaritzak ISEBen laguntza izan zuen (Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua), Horné Považie eskualdeari (Eslovakia) laguntza teknikoa emateko proiektuaren deskripzioarekin, proiektua eskualde-garapenari buruzkoa delarik. Honako hauek izan ziren helburuak: eskualdeko ekonomia- eta gizarte-alderdi nagusiei buruzko informazio-sistema bat diseinatzea, industria-sektorea eta enpresa nagusiak aztertzea, lehiakortasuna eta ekonomia- eta

gizarte-egitura hobetzeko plan estrategiko bat sortzea, eta laneko plan bat prestatzea Eskualdeko Garapen Agentziarentzat, lidergoa eraman dezan prozesu guztian.

6.4. “Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea: eskualde arteko lankidetzak, mugarik gabeko Europan” izeneko bideoa, 2008ko ekainaren 18 eta 19ko 75. Osoko Bilkuran onartutako irizpena prestatzeko erabilia.

Eskualdeetako Komiteak bideo bat grabatu zien EKren kide batzuei, Europan lurraldeen arteko lankidetzak bultzatzearen garrantziaz mezu politiko bat zabaltzeko, eta “Lurralde arteko Lankidetzarako Europako Taldea” (AECT) izeneko tresna berriaren abantailez aprobetxatzeko.

EKko politikariei Europan gaurkotatzen duten gaiei buruzko bideoak grabatzea tresna bat gehiago da, EBren politikak Europako herritar guztiei helarazteko. Era berean, bideo horien bitartez azaldu nahi dira gai zehatzen inguruan Erkidegoak politika bat edukitzearen eta lor daitezkeen emaitza onen abantailak.

Euskadiren izenean, Iñaki Agirrek adierazi zuen Euskal Herriak 7.000 urte baino gehiago daramatzala Pirinioen inguruan bizitzen. AECT oso tresna garrantzitsua da mugaz gaindiko lankidetzak indartzeko, mugaren bi aldeetan. Mendigunea barrera bat dela uste dugu, eta tokiko eta eskualdeko erakundearen papera oso garrantzitsua da lankidetzak indartzeko mendigunearen alde bietan. Era horretan, ingurunea sendotu eta eskualde osoaren garapen iraunkorra ziurtatzen dugu, bai eta informazio- eta komunikazio-teknologia berrietara iristea ere, paisaia eta ingurumena garai batean zeuden bezala kontserbatuz. AECT tresna ona da helburu horietara iritsi ahal izateko.

7.- Subsidiariorotasunaren azterketa

7.1. IV. Subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen diren aztertzea, “Gaixoen eskubideen aplikazioa mugaz gaindiko osasun-laguntza”n (2008ko iraila – urria).

Eskualdeetako Komitearen Subsidiariorotasuna Aztertzeko Sareak 2008an azterketa pilotu bat abiarazi zuen subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruz osasun publikoan eta, zehazkiago, legearen testu honetan: *“Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, mugaz gaindiko osasun-laguntzan gaixoen eskubideak aplikatzeari buruzkoa [COM(2008) 414 azkena]”*

Azterketa horren helburua da prest egotea Lisboako Itun berriak subsidiariorotasuna eta proportzionaltasuna betetzeko tokiko eta eskualdeko erakundeei emango dizkien funtzio berrietarako. Bertan hartu zuten parte Eusko Jaurlaritzak eta Eusko

Legebiltzarrak, lankidetzan estuan, eta oso positiboa izan zen bi erakunde horien jarrerak finkatu ahal izateko.

Europako Gaietarako Zuzendaritzaren koordinaziopean, Eusko Jaurlaritzak txosten bateratu bat egin zuen, Gobernuaren Zuzendaritza hauen artean: Osasun Finantzazio eta Kontratazioa, Ikerlan eta Garapen Sanitarioa, Araubide Juridikoa, Europako Gaiak eta Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzaren artean. Txosten horretan islatu zen Eusko Jaurlaritzaren jarrera, eta horri buruz Jaurlaritzak duen jarrera prestatzeko balio izan zuen. Era berean, Osasun Finantzazio eta Kontratazioko zuzendariak –Josu Garaik– eta Europako Gaietarako zuzendariak –Mikel Anton Zarragoitiak– Eusko Legebiltzarraren Osasun Batzordearen aurrean azaldu zuten Gobernuak horretaz duen jarrera, eta subsidiariorotasun-azterketak egitearen garrantzia.

Honako hau da txosten horren ondorioa: aztertutako Osasun Publikoaren zuzentarauak, gaixoen eta osasun-zerbitzuen zirkulazio liberako oztopoak kentzeaz gain, urratu egiten du estatu kideek osasun-arloan duten eskumen eskusiboa, bai eta osasun-zerbitzuak eta laguntza medikoak antolatzeaz eta emateaz arduratzen den Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa ere. Osasun Saileko Zuzendaritzaren ustez, zuzentaru horrek eragin handia eta kaltegarria izango luke osasun-zerbitzuak antolatzean eta ematean, eta, era berean, inbaditu egingo lituzke estatu kideen eskumenak eta, geure kasuan, gure Autonomia Erkidegoarenak. Txostenaren arabera, beraz, zuzentaruaren proposamenak ez zituen errespetatzen proportzionaltasun- eta subsidiariorotasun-printzipioak, ez eta eskumenak ematearena ere.

7.2. Eragin Txostenen Gidalerro Berrietan subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruzko kontsulta espezifikoa (2008ko ekaina-uztaila)

EKren subsidiariorotasuna kontrolatzeko sareak kontsulta espezifikoa bat egin die tokiko eta eskualdeetako erakundeei, Eragin Txostenak egiteko Europako Batzordearen gidalerro berriei buruzko iritzia jakiteko. Eraginaren azterketak indartu egin dira Lisboako Itun berrian, haiek egiteko modua garatzen baitu.

Eskualdeek eta udalerriek horren aurrean duten jarrera oso garrantzitsua da. Izan ere, batetik, haiek arduratzen dira Erkidegoaren politikak ezartzen; bestetik, ELek 2009tik aurrera tokiko eta eskualdeetako erakundeei kontsulta egiteko asmoa zuen, Europako Batzordearen laguntzaz aurrez hautatutako lege-ekimen zehatz batzuek lurraldean duten eraginari buruz.

Galdera-sortari erantzuten lagundu du Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkariak, eta hark azaldu du gure Autonomia Erkidegoak duen esperientzia Euskadin eragin-azterketak egiteko tresnak garatzen, hain zuzen ere, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen ondorio direnak. Era berean, EKren subsidiarotasun-azterketei erantzuteko sortu diren koordinazio-tresnen berri eman da. Horiexek erabiltzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailek, bai eta Eusko Jaurlaritzak berak ere.

7.3. Lurralde Kohesioaren Liburu Berdean subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruzko kontsulta espezifikoa (urria-azaroa)

2009ko otsailean eztabaidatutako Lurralde Kohesioari buruzko irizpenaren txostengilearen ekimenez, EKren subsidiarotasun-sareak 2008ko bukaeran kontsulta espezifiko bat egin zuen bere kide guztien artean, iritzia eman zezaten subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruz eta beste gai garrantzitsu batzuei buruz, hori guztia Lurralde Kohesioaren Liburu Berdearekin loturik.

Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen kontsulta horretan, eta Euskadin Bruselan duen ordezkariaren bidez eman zituen erantzunak eta gidalerroak lurralde-kohesioaren esanahiaz. Kontzeptu hori Lisboako Itun berrian erabili da lehenbiziko aldiz, eta horixe da funtsezko galdera Liburu Berde berri honetan. Europako Batzordeak erabaki beharra dauka kontzeptu hori nola interpretatu, bere aplikazio praktikoa zein izango den, eta, funtsean, ekintza espezifikoak eta gobernatzeko moduak proposatu behar ditu.

Eusko Jaurlaritzak honako hau azpimarratzen du galdera-sortan: Erkidegoko politikak egiteko orduan, kontuan hartu behar dela EBren arauak lurraldean duten eragina, koordinazio handiagoa egon behar duela EBko sektore- eta lurralde-politiken artean, bai eta gobernu-maila guztien politiketan ere, eta errespetatu egin behar direla estatu-, eskualde- eta toki-eskumenak. Era berean, aipatzen du nola lagundu ahal dion lurraldeen arteko lankidetzak lurralde-kohesioari, eta gobernantzaren kontzeptua nola sakondu behar den maila guztien artean.

EUSKADIREN BESTE EKINTZA ETA EKIMEN BATZUK ESQUALDEETAKO KOMITEAN

8.- Eskualdeetako Komitearen presidenteari buruzko topaketak

8.1. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Eskualdeen Lantaldeko Luc Van den Brande presidenteari egindako bisitaldia, Bruselan (2008ko maiatzak 21).

Lehendakaria Eskualdeetako Komitearen Luc Van den Brande Presidentearekin batzartu zen Bruselan. Topaketaren ondoren, lehendakariak adierazi zuen Euskadik presentzia aktiboa eduki nahi duela Europar Batasunean. "Ez dugu eragile pasibo bat izan nahi Europaren eraldaketa-prozesuetan", esan zuen, eta euskaldunok "parte hartu nahi dugu Europa eraikitzen " gehitu.

Lehendakariak Europako Kontseiluaren ebazpen bat gogorarazi zuen, EBko estatuez gain, Europan protagonismoa eduki behar duten nazioak ere badaudela dioena. "Geure nortasuna dugu, eta, Europako Kontseiluak dioen bezala, geure nortasunetik sakondu nahi dugu Europan parte-hartzeko prozesuetan. Ez gaude EBri kontra egiteko, laguntzeko baizik", esan zuen. Ildo horretatik, lege-eskumenak dituzten nazioek eta eskualdeek EKn paper aktiboagoa eta bereziagoa edukitzea eskatu zuen, Europako Batzordearekin elkarrizketa egituratu zuzena, eta subsidiarotasun-printzipioa benetan aplikatzea toki- eta/edo eskualde-mailan.



Lehendakaria Bruselan elkartu zen Eskualdeen Lantaldeko Luc Van den Brande presidentearekin.

8.2. Eskualdeetako Komitearen presidente Luc Van den Branderen hitzaldia CALREren XII. Osoko Biltzarraren hasierako saioan, Bilbon (2008ko azaroak 3).

Van den Brande presidenteak Hübner komisarioarekin batera hartu zuen parte Europako Eskualdeetako Legebiltzarretako Presidenteentzako Konferentzian (CALRE). Van den Brande presidenteak Lisboako Itunaren geroaz hitz egin zuen, eta finantza-krisiak

tokiko eta eskualdeko erakundeetan duen eraginaz. Eskualdeko legebiltzarrak ezinbestekoak omen dira krisi ekonomiko honetan Europa gidatzeko.

“Ekonomian eta finantzetan halako asaldura dagoenean, sendotasuna eta lidergoa erakutsi behar dugu eskualdeetako politikariok. Krisitik irteten lagundu eta konponbide praktikoak eskaini behar ditugu. Badakizue 2009 urte zaila izango dela eskualdeetako aurrekontuentzat, eskualdeetako proiektuak finantzatzeko, eta banketxe- eta aseguru-sektorearen egonkortasunari eusteko. Zeuen eskuetan dagoen guztia egin dezazuen eskatzen dizuet, herritarrek berriro ere gure ekonomiaren sendotasunean konfiantza izan dezaten eta gure eskualdeek egungo erronka ekonomikoak gaindi ditzaten”, esan zuen.

Era berean, Van den Brandek eskualdeetako legebiltzarrei eskatu zien boto-emaileak mobilizatzeko Europako hurrengo hauteskundeetan, 2009ko ekainean: “Askotan esan izan da Europa urrunegi dagoela herritarrengandik, baina orain arte EBek ez du inoiz erakutsi zein garrantzitsua den, europarren egonkortasun ekonomikorako eta ongizaterako. Eskualdeek mezu argia jaso behar dute: Europako integrazio-prozesua dagoeneko frogaturik dago, eta europarron interesak defendatzeko tresna egokia eta eraginkorra dela erakutsi du.”

Van den Brandek N+2 arauaren aplikazioa berrikusteko eskatu zion Hübner komisarioari, finantza-krisiak tokiko eta eskualdeko erakundeetan 2009ko diru-sarreretan eta eskualdeko funtsen eskuragarritasunean izango dituen ondorio larriak direla-eta. Arau horrek dioenez, eskualdeei eman eta hurrengo bi urteetan erabili ez diren Europaren funtsak itzuli egin beharko zaizkio Europako Batzordearen aurrekontuari. "Finantzen ikuspegitik hain zaila den une honetan, eskualdeei denbora gehiago eman eta malguagoak izan behar genuke", adierazi zuen Van den Brandek. Hübner komisarioak esan zuenez, eskualde-politikaz arduratzen den Europako Batzordearen Zuzendaritza Nagusia egungo eskualde-politikak aztertzen ari da, gardenak eta malguak izan daitezzen.



Eskualdeetako Komitearen presidentea, Luc Van den Brande, CALREk Bilbon egindako Biltzarreko parte-hartzaileekin

9.- Eusko Jaurlaritzaren hitzaldi bereziak Europako komisarioen aurrean

9.1.- 74. Osoko Bilkura (2008ko apirilak 9 eta 10): Iñaki Agirre Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren **hitzaldia, Informazio Gizartearen eta Hedabideen komisario Viviane REDINGen aurrean.**

Bere hitzaldia hasteko², Iñaki Agirrek eskerrak eman zizkion komisarioari Eskualdeetako Komitera etortzeagatik, eta European dagoen arrail digitala murrizteko egindako lanagatik. E-inklusiorako 2010 Europar Ekimenari Euskadik ematen dio babesa ere aipatu zuen.

Ondoren, idazkari nagusiak e-gaitasunak garatzearen garrantzia jorratu zuen, hau da, pertsona eta profesional bakoitzak jakintzaren gizartean eduki behar dituen ahalmen digitalak. Gaitasun horiek, gainera, kolektibo bakoitzaren premietara egokiturik egon behar dute; ildo horretatik, Iñaki Agirrek Batzordeari dei egin zion herritarrak kontzientziatzeko ahaleginetan jarrai dezan, estatu-, eskualde- eta toki-botereen eskutik.

Arrail digitalak murrizteko ahalegin horretan, funtsezkoa da eskualdeen lana. Horregatik, EKko euskal ordezkariak gogora ekarri zuen Eskualdeko eta Tokiko Agintariak Informazio Gizarteari buruz 2005ean Bilbon egindako Munduko II. Goi Bilera. Goi Bilera horretan, eskualdeko eta tokiko ordezkariak hitz eman zuten Informazio Gizartea osoki garatzeko konpromisoaren alde lan egiteko, eta Aurretiko

² Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Informazio Gizartearen Zuzendari Elena Gutierrez Perez del Notarioren laguntzarekin

Ekintza Plan bat prestatu zuten, non Tokiko Agenda Digitalen kontzeptua baita garrantzitsuena.

Iñaki Agirrek ez zuen bere hitzaldia amaitu nahi izan Telekomunikazioen tarifetan dauden alde handiak aipatu gabe, batez ere banda zabalari dagokionez. Prezio horiek gizartearentzat garestiak direnez, IKTen tarifak merkatzeko lanek jarrai dezaten eskatu zion komisarioari.

9.2.- 75. Osoko Bilkura (2008ko ekainak 18 eta 19): Iñaki Agirre Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren hitzaldia, ALDE talde politikoaren izenean, Batzordeko presidenteorde eta Enpresa eta Industria komisario Günter VERHEUGENen aurrean.

Iñaki Agirrek berrikuntzaz jardun zuen, eta ekonomia-garapenaren eta enpleguaren erronkak gainditzeko modu gisa planteatu zuen. Ildo horretan, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak klusterrak aipatu zituen, bere ustez, euskal ekonomia berregituratzeko gakoetako bat baitira, eta oso erabilgarriak ekonomia eta lehiakortasuna bizkortzeko.

Lerro estrategikoa argi eta ongi zehazturik dagoenean, diferentziala da erakunde-mota hori. Horrela, Euskadiren adibidea jarri zuen Agirrek; klusterren laguntzaz berregituratu eta birmoldatu baita euskal industria, sektore helduei teknologia berriak eta pertsonei prestakuntza emanez.

Hala ere, lehiakorrak izaten jarraitu nahi badugu, uste baitugu Europak klusterren politika gardena bultzatu behar duela. Horretarako, Agirrek hiru iradokizun egin zituen: klusterren arteko Europa mailako lankidetzak aurkitzea, lankidetzak hori aurrera eramateko esparru bat sortzea, eta egindako politikak neurtzea klusterra hobetzeko.

Gainera, euskal ordezkariak adierazi zuenez, Europa mailako kluster-sare bat sortu beharraz gain, estatuz azpiko erakundeak edo eskualdeak dira esparrurik egokiena horrelako egiturak garatzeko, emaitzak hobekaitza baitira jardueraren gune geografiko jakin batean aplikatzen denean.

9.3.- Espainiako Ordezkaritza (2008ko urriak 8): Iñaki Agirre Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren hitzaldia, Eskualde Politikaz arduratzen den Danuta HÜBNER Europako komisarioaren aurrean.

Bere hitzaldiaren hasieran, une honetan munduan dagoen finantzen asaldura aipatu zuen komisarioak, eta azpimarratu zuen egoera zailtan kohesio-politika babes handia dela lana eta lehiakortasuna lortzeko, bai eta Europako eskualdeen artean desberdintasunak murrizteko ere; hori dena, maila anitzeko gobernantzari eta subsidiariorotasunari esker.

Era berean, langabezia handiko eskualdeei BPGren % 75az gorako laguntzak emateko aukera aipatu zuen, era horretan ekonomiaren hazkundera eta gizartearen garapena bultzatzeko. Horretaz gainera, informazio-gizartean inbertitzearen eta landa-inguruneetan banda zabala ezartzearen alde hitz egin zuen. Amaitzeko, Batzordeak urriaren 6an onartutako Liburu Berdea aurkeztu zuen. Bertan dator lurralde-kohesioaren kontzeptua, eta haren asmoa da erabakitzea –eztabaidatuz, kontsultatuz, eta eskualdeko eta tokiko erakundeek emandako adierazleak bilduz– lurralde-kohesioaren politikak lurraldeen hazkunderari nola bultza diezaiokeen.

Hübner komisarioaren hitzaldia bukatzean, Iñaki Agirrek Euskadiren iritzia³ eman zuen egitura-funtsen (hain zuzen ere FEDERren) kudeaketaz; eskualdeko eta tokiko erakundeetako tarteko erakundeei jarraipen eta kontrol gehiegi eta bikoiztuak egiten zaizkiela esan zuen. Horrek koordinatu gabeko egiaztapen gainjarriak eragiten ditu, eta proportzionaltasunik eza kontrolen multzo osoan.

Agirrek dionez, hauek denak aritzen dira Euskadiri kontrolak egiten: Luxenburgoko Kontu Auzitegia, Euskadiko Kontu Auzitegia, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoaren Bulegoa, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, Estatuko Ikuskaritza Nagusia eta Europako Batzordea. Horren ondorioz, lehen aipatutako kontrolak bikoizteaz eta gainjartzeaz gain, sarritan egoera absurduak sortzen dira: adibidez, Batzordeko Araudietako **ex ante** kontrolak egiten zaizkie gauzatuta dauden proiektuei; horren ondorioz, berriro ireki behar dira eta giza baliabide eta baliabide material ikaragarri xahutzen da.

Agirreren hitzetan, gure proposamena “ez da kontroletatik ihes egitea”, Euskadiren ustez beharrezkoak eta ezinbestekoak baitira Erkidegoko funtsen kudeaketa bermatzeko; baizik eta “kontrol-agintarien arteko koordinazioa bultzatzea”, gainjartzerik eta bikoizterik egon ez dadin, eta balio osoa ematea eskualdeko agintariek berek egindako kontrolei.

Komisarioak ahoz erantzun zuen, bai eta ondoren idatziz ere, eta aitortu zuen koordinazioa funtsen kudeaketan eta kontrolean hobetu behar dela, eskura dauden baliabideak zentzuz erabiltzeko, eta kontrolak ez errepikatzeko. Azaldu zuen zehatz-

³ Iñaki Beristain Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza zuzendariaren laguntzarekin

mehatz zergatik egiten den kontrol bakoitza eta Erkidegoko zein arautan oinarriturik egin den.

9.4.- ALDE talde politikoko alkateen afaria (2008ko maiatzak 14): Iñaki Agirre Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren **hitzaldia, Jacques BARROT Europako Garraio komisarioaren aurrean.**

Ikusi hurrengo 10. atalean: ALDEko alkateen lehenbiziko bilera

10.- Ezohiko bilerak

Europar Batasuneko ALDEko alkateen lehenbiziko bilera (2008ko maiatzak 14 eta 15)

Iñaki Agirre Kanpo Harremanetarako idazkariak ordezkatu zuen Euskadi, Europako Parlamentuko Liberalen eta Demokraten talde politikoak (ALDE) eta Eskualdeen Lantaldeko talde homologoak antolatutako bileran. Talde horretako ELko eta Europako Parlamentuko kideez gain, bertako alkate batzuk ere izan ziren. Euskadi ordezkatzeko gonbidatuak hauek izan ziren: Imanol LANDA, Getxoko alkatea, Ricardo ITUARTE, Santurtziko alkatea, Jon Karla MENOYO, Laudioko alkatea, Asier ARANBARRI, Azkoitiko alkatea, eta horiekin batera Mar ZABALA, EUDELeko zuzendaria.

Lan-afari bat antolatu zen, 14an, eta bertan Europako Garraio komisarioa, Jacques Barrot, izan zen gonbidatu berezia, bai eta talde politikoak Europako Parlamentuan eta Eskualdeetako Komitean dituen presidenteak ere. Afari hartan, Agirrek itsasoko autopisten gaia⁴ aipatu zuen; BARROT komisarioari galdetu zion autopista horien egoeraz eta bere ustez nola lagun dezaketen errepideko trafikoa desbideratzen, garraio-mota horrek dituen arazo guztiak kontuan hartuta.

Gonbidatutako alkateen intereseko mahai-inguruak egin ziren 15eko bileran. Horrela, ALDE taldeak Europako Parlamentuan duen Graham WATSON presidenteak eta ALDE taldeak ELn duen Flo CLUCAS presidenteak ongietorria egin ondoren, lehenbiziko saioan hiri-garraioa eta garraio-zerbitzu publikoaren betebeharrak jorratu ziren; bigarrenean, berriz, egitura-funtsen etorkizuna, eta, hirugarrenean, hiriek Europako proiektuetan izandako parte-hartzearen adibide batzuk.

⁴ Jose Manuel Bujanda Arizmendi Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko aholkulariaren laguntzarekin



Iñaki Agirrerren ondoan, alkateak eta EUDELen Bruselako zuzendaria

11.- Osoko bilkuraz kanpoko jarduerak: OPEN DAYS

OPEN DAYS, Eskualdeen eta Hirien Europako Astea (2008ko urriak 6 eta 7)

EBko erakundeek antolatzen dituzte OPEN DAYS direlakoak. Eskualde-politikari buruz egiten den urteroko hitzaldi- eta trukaketa-saiorik handiena da, eta bere helburua da sektore publiko nahiz pribatuko arlo horretako interesatuak elkartzea, eta ikasitakoa eta jardunbide egokiak gertutik ezagutzea. Eskualdeak gai-multzoen arabera taldeetan banatzen dira, eta ekimenak aurkezten dizkiote publiko zabalari. Horrekin batera, "Investor's café" izeneko foro bat ere sortu da, eskualde-politikari buruzko sektore publiko nahiz pribatuko ordezkarien topagunea, Eskualdeetako Komiteak Bruselan duen egoitzan urtero egiten dena.

"Eskualdeak eta Hiriak erronken mundu batean" lelopean, "OPEN DAYS 2008" jardunaldien edizio honetan aritu dira 32 herrialdeetako 216 eskualde eta hiritako 5.000tik gora pertsona, denak ere EBko arduradunak, nazio-, eskualde- eta toki-politikariak, adituak, enpresetako, banketxe-erakundeetako eta gizarte zibileko ordezkariak; 140 mintegi eta hitzaldi egin dira guztira.

Bruselan duen ordezkartzaren koordinaziopean, Euskadik hiru aldiz hartu du parte OPEN DAYS 2008an, bakean, berrikuntzan eta eskualdeko biziberritze eta marketinean egindako jardunbide egokiengatik: KONPONDU, INNOBASQUE eta BILBAO Ría 2000 proiektuak dira. Ekimenik onenak direlakoan aurkeztu zaizkie EBko eskualdeei, Erkidegoko erakundeiei eta Europako sektore publiko nahiz pribatuko ordezkariari.

Lehenbiziko proiektua, KONPONDU, Gorka Espiauk, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzako aholkulariak, aurkeztu zuen, "Bakearen Aldeko Europako Hiri eta Eskualdeen Sare Berria"ren aurkezpenaren barruan. Sare horren helburua da esperientziak trukatzea EBren baitan bakea eraikitzeko, eta bertako liderrak dira Ipar Irlandako Gobernuak, Erresuma Batua, Irlandako Errepublika eta Europako Batzordea bera.

Aipatutako bigarren proiektua, INNOBASQUE, "Iraunkortasunaren eta berrikuntzaren alde elkarlanean" taldean aritu zen, Eslovakiako, Espainiako, Frantziako, Italiako eta Portugalgo eskualdeekin batera. Innobasqueko Internazionalizazio Arloko zuzendari nagusiak, Xabier Maidaganek, aurkeztu zuen proiektua, urriaren 7ko hitzaldian. Era berean, berrikuntzari buruzko europar mintegi bat antolatu zen Bilbon, "Business Global Conference" izenburupean eta OPEN DAYSen "tokiko ekitaldien" baitan, 2008ko urriaren 22an eta 23an.

Bestalde, biharamunean, "Investor´s café" foroaren baitan, Euskadiren "BILBAO Ría 2000" proiektua aurkeztu zuen hitzaldi baten bidez bere zuzendariak, Angel Maria Nievak. Sektore publiko nahiz pribatuko 200 ordezkariaren aurrean, Bilbok izandako aldaketa urbanistikoa, ekonomikoa eta soziala aurkeztu zuen Angel Nievak. Aldaketa horiek direla-eta, eskualdeko biziberritzearen eta marketinaren adibide bilakatu den hirietako bat baita.



ONDORIOAK

Euskadi oso kide aktiboa da Eskualdeetako Komitean. Bere lan nagusia izan da Erkidegoko araudia aztertzea eta bertan eragina edukitzen saiatzea, eta, horretarako, bere jarrera adierazi du eta bere harri-koskorra ekarri Europaren eraikuntza eta integrazioa posible egiten duen Erkidegoko bilbadura konplexuari.

Halaber, EKko Osoko Bilkuretan komisarioak eta beste pertsonaia garrantzitsu batzuk egoteak aukera eman digu gure ikuspegia eta kezkek adierazteko hainbat gairi buruz, gure eskualdea eta euskal erakundeen lan egiteko eta azterketak egiteko gaitasuna ezagutaraziz.

Balantze honen ondorioa da Euskadik jakin duela EKK eskura jarritako tresnak eta baliabideak erabiltzen: adibidez, zuzenketak idazteko aukera, irizpenak egitea, galdera-sorta espezifikoak betetzea, Europako komisarioen aurrean esku hartzea, subsidiarotasun-printzipioa betetzeari buruzko azterketa pilotuak eta *ad hoc* kontsultak egitea, OPEN DAYSetan parte hartzea, eta goi-mailako ordezkari politikoekin biltzea.

1) EUSKADIREN PARTE-HARTZEA ESKUALDEETAKO KOMITEAREN KONSULTARAKO JARDUERAN

Erkidegoko araudiaren azterketan –hau da, EKren "konsultarako jardueran"– Euskadik duen parte-hartzeari dagokionez, taula honetan laburtu ditugu Euskadik Erkidegoko araudiari egindako zuzenketak:

Urtea	Irizpen-kopurua	Iritzi-eskaerak sailentzako	Jasotako erantzunak	Parte-hartzearen ehunekoa	Jasotako zuzenketa-kopurua	Aurkeztutako zuzenketa-kopurua	Onartutako zuzenketen ehunekoa
2007	43	59	44	% 75	80	70	% 79 ⁵
2008	64	77	69	% 90	93	82	% 85 ⁶

1.1. Euskadiren parte-hartzea

2008an, Euskadirentzat interesekoak diren 64 irizpen-proiektu prestatu ditu Eskualdeetako Komiteak. Iazko 43 irizpenak baino askoz ere gehiago.

Beraz, logikoa da Eusko Jaurlaritzako sailei egindako iritzi-eskaerak ugaritzea, 2007ko 59tik 2008ko 77ra.

⁵ Aurkeztutako zuzenketetatik onartutakoen ehunekoa

⁶ Idem

Gobernuko sailek emandako erantzunen kopurua handiagoa da, 44tik 69ra igaro baikara, baina denetan aipagarriena da erantzun-maila ere igo egin dela proportzioan: **Sailen parte-hartzea oso egokia izan da, % 90**, 2007ko % 75aren aldean.

1.2. Balorazioen kalitatea

Jasotako erantzun-motari dagokionez, **zuzenketadunak** pixka bat gutxitu egin dira: 2007ko % 45etik 2008ko % 41era. Horrek esan nahi du ugaritu egin direla aztertutako irizpen-proiektuei sailek emandako adostasunak.

Zuzenketadun erantzunak gutxitu arren, jasotako zuzenketak ugaritu egin dira. Hain zuzen ere, 2008an sailek 93 zuzenketa idatzi dituzte, eta aurreko urtean 80. Aurkeztutako zuzenketak ere aurreko urtean baino gehiago izan dira: 70etik 82ra igaro gara. Konparatuz gero, jasotako zuzenketen aldean EKri aurkeztutako zuzenketen kopurua berdina izan da: % 88.

Azkenik, 2008an onartutako zuzenketak ugaritu egin dira: aurkeztutako zuzenketen % 85 onartu dira, eta 2007an, berriz, % 79. Euskadiko zuzenketen onarpen-maila oso egokia izan dela uste dugu.

1.3. Irizpen-proiektuen tipologia

Eusko Jaurlaritzak iritzia eman du hainbat irizpen-proiektutako gaiei buruz, eta bere jarrera adierazi du zuzenketen bidez. Eusko Jaurlaritzaren sailei egindako iritzi-eskaeren kopuruaren arabera, honako hauek dira gai nagusiak bolumenari dagokionez: Nekazaritza, Gizarte Ongizatea, Hezkuntza, Enplegua, Energia, Immigrazioa, Europako Integrazioa eta Erakundeak eta, azkenik, Ikerketa eta Garapena.

2007an 27 gai desberdini buruzko irizpenak landu ziren, eta 2008an, berriz, 32ri buruzkoak.

1.4. Beste eskualdeen zuzenketak babestea

Bere zuzenketak egiteaz gain, Euskadik babestu eta besterekin batera aurkeztu ditu 208 zuzenketa, batik bat beste Autonomia Erkidegoek eta Europako Liberalen

eta Demokraten Talde Politikoko (ALDE) eskualdeek eta udalerriek eginak. Gogoratu ELko gutxienez 5 kideren sinadurak behar direla zuzenketak aurkezteko, gehi egin dituen kidearena.

2007ren aldean, 2008an bikoiztu egin dira beste eskualdeetatik jasotako zuzenketak, eta Euskadik babestu eta besterekin batera aurkeztu dituen zuzenketak. Horrela, 2007an 161 zuzenketa jaso eta 116 babestu baziren; 2008an, berriz, 396 jaso eta 208 babestu ziren. Horrek esan nahi du beste eskualdeekin batera zuzenketak aurkezteko lan handia egin dela, eta tresna bat gehiago dela Euskadiren ikusgarritasuna handitzeko eta geure interesak Europan defendatzeko.

1.5. Euskadik irizpenak egitea

EKk Euskadiri agindu zion Europako eskualdeen eta udalerrien jarrera idazteko eta zuzentzeko, Erkidegoko bi arau-proposameni buruz:

- 1.- Batzordearen araudi-proposamena Europako Ikerketa Azpiegituren (ERI) zuzenbide-esparruaz – COM (2008) 467 azkena.
- 2.- Batzordearen komunikazioa Ikerketa Programazio Bateraturantz – COM (2008) 468 azkena.

Agirrek jarrera hori prestatzeko agindu zion Eusko Jaurlaritzako teknologia-zuzendariari, Alberto Fernandez Gonzalezi, eta bera izan zen aditua prozesu osoan. Era berean, hauek aritu ziren laguntzaile: Zientzia Politikarako zuzendaria, BIO Fundazioko zuzendaria, AZTI-Tecnalia eta NEIKER-Teknialiako presidentea, eta IHOBEko zuzendari nagusia.

Dokumentuak ez ziren uko egiten Euskadiren interesei, eta nahikoa zabala izan zen Europako beste eskualdeen eta hirien interesak ere sartzeko. Irizpena ia aho batez onartu zuten (kontrako lau boto egon ziren) EKko Osoko Bilkurako 344 kideek eta botoek.

1.6. Galdera-sorta espezifikoak betetzea

Irizpenen kalitatea hobetze aldera, Euskadik bere esperientzia praktikoa aurkeztu zuen gai hauei buruz:

- “Etorkizuneko asilo-sistema europar bateratua”, izen bereko irizpen onartua prestatzeko erabilia.

- “Maiatzaren 9rako (Europaren Eguna) aurreikusitako ekintzak eta EBko politikari buruzko komunikazioa”, “Europari buruz elkartean komunikatzea” irizpena prestatzeko erabilia.
- “Tokiko eta eskualdeko erakundeek zabalkunde-prozesuan parte hartzearen balio erantsia”, izen bereko irizpena prestatzeko erabilia.
- “Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea: eskualde arteko lankidetzaren mugarik gabeko Europan” izeneko bideoa, izen bereko irizpenaren edukia zabaltzeko erabilia.

1.7. Subsidiarotasunaren azterketa

Lisboako Itunak ematen dizkion funtzio berrietarako prestatu ahal izateko, EKK azterketa pilotu hauek antolatu ditu, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzen diren aztertzeko:

- Subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen den aztertzeari, Gaixoen Eskubideen Aplikazioa Mugaz Gaindiko Osasun Laguntzan.
- Eragin Txostenen Gidalerro Berrietan subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruzko kontsulta espezifikoak.
- Lurralde Kohesioaren Liburu Berdean subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betetzeari buruzko kontsulta espezifikoak.

2) EUSKADIREN BESTE EKINTZA ETA EKIMEN BATZUK ESQUALDEETAKO KOMITEAN

2.1. Eskualdeen Lantaldeko presidentearekin topaketak

- **Lehendakariak** Eskualdeetako Komitearen Luc **VAN DEN BRANDE** presidenteari egindako bisitaldia, Bruselan.
- Eskualdeetako Komiteare **Luc VAN DEN BRANDE** presidenteari hitzaldia CALREren XII. Osoko Biltzarraren hasierako saioan, Bilbon.

2.2. Eusko Jaurlaritzaren hitzaldi bereziak Eskualdeetako Komitearekin lotutako ekintza eta jardueretan.

Iñaki AGIRREK, Eskualdeetako Komitearen Euskadiren ordezkariak, komisario hauen aurrean hitz egin zuen:

- **Viviane REDING**, Informazio Gizartearen eta Hedabideen komisarioa, e-inklusionarako Europa 2010 Ekimenari buruz.
- **Günter VERHEUGEN**, Batzordeko presidenteordea eta Enpresa eta Industriaren komisario europarra, berrikuntzari buruz eta klusterrek ekonomia bizkortzeko duten garrantziari buruz.
- **Danuta HÜBNER**, Eskualde Politikarako komisarioa, Erkidegoko funtsen gaineko kontrol bikoiztuei eta gainjarriari buruz.
- **Jacques BARROT**, Garraioen komisario europarra, itsasoko autopisten egoerari buruz.

2.3. Ezohiko bilerak

- **Europar Batasuneko ALDEko alkateen lehenbiziko bilera.** Europarlamentario batzuk, ELko kideak eta alkateak elkartu ziren, denak ere ALDE talde politikokoak, harremanak estutzeko eta topaketa bat izateko Erkidegoko erakundeetako zenbait pertsonaiekin. Gai nagusiak izan ziren hiri-garraioa, egitura-funtsen etorkizuna eta Europako proiektuetan parte hartzea.

Euskaditik joan ziren Iñaki Agirre, EKko euskal ordezkaria, Ricardo ITUARTE, Santurtziko alkatea, Jon Karla MENOYO, Laudioko alkatea, Asier ARANBARRI, Azkoitiko alkatea, eta Mar ZABALA, EUDELeko zuzendaria.

2.4. Osoko bilkuraz kanpoko jarduerak: OPEN DAYS

- **OPEN DAYS, Eskualdeen eta Hirien Europako Astea.** Eskualdeko eta tokiko politikei buruz egiten den urteroko hitzaldi- eta trukaketa-saiorik handiena da, eta 5.000tik gora pertsonak hartu dute parte bertako jardueretan eta tailerretan. Euskadik bere jardunbide egokiak aurkeztu ditu gai hauei buruz: bakea, Gorka Espiauren bidez, Lehendakaritzako aholkularia; berrikuntza, Xabier Maidaganen bidez, Innobasqueko Internazionalizazio Arloko zuzendari nagusia; eskualdeko biziberritzea eta marketina, Angel Maria Nievaren bidez, BILBAO Ría 2000ko zuzendaria.



**ERANSKINA:
IRIZPEN-PROIEKTU, BIDALKETA ETA
ZUZENKETA GUZTIEN ZERRENDA**



EK 155/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari eta Parlamentuari – Itsaso Beltzaren sinergia, eskualde-lankidetzaren ekimen berri bat.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/01/08	Adostasuna		

EK 173/07 azkena. Ekimen-irizpena – Gazteen hiritartasun aktiboa sustatzea hezkuntzaren bidez.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Gazteria eta Erkidegoko ekintza	2008/01/08	Adostasuna		

EK 174/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari, Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari, bizi-zientzien eta bioteknologiaren arloko estrategiaren tarteko txostenari buruz.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Teknologia	2008/01/08	Zuzenketak	3	3

EK 197/07 azkena. Irizpen prospektiboa – Nekazaritza Politika Bateratuaren Azterketa.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	Nekazaritza eta Abeltzaintza	2008/01/08	Zuzenketak	7	4

EK 236/07 azkena. Liburu Berdea – Hiri-mugikortasunaren kultura berri baterantz.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
EUDEL	-----	2008/01/08	Adostasuna		

EK 237/07 azkena. Batzordearen komunikazioa – Portu-politika europar bati buruzko komunikazioa

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Garraioa eta Herri Lanak	Portuak eta Itsas Gaiak	2008/03/04	Adostasuna		

EK 245/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari – Zabalkundearen estrategia eta erronka nagusiak (2007-2008)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Euskadiren Ordezkaritza Bruselan	2008/03/05	Zuzenketak	1	1
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/03/20	Zuzenketak	2	1

EK 246/07 azkena. Europako Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, zabalkundearen estrategia eta erronka nagusiei buruz (2007-2008)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Euskadiren ordezkaritza Bruselan	2008/03/05	Zuzenketak	6	6

EK 254/07 azkena. Boluntarioen ekarpena ekonomia- eta gizarte-kohesioari

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Herritarren parte-hartzea	2008/01/08	Zuzenketak	4	4

EK 255/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari, Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Gazteen parte-hartzea sustatzea hezkuntzan, enpleguan eta gizartean.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Gazteria eta Erkidegoko Ekintza	2008/03/04	Adostasuna		

EK 262/07 azkena. Kirolari buruzko Liburu Zuria.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Kirolak	2008/01/08	Zuzenketak	3	3

EK 263/07 azkena. “Ikerketari eta berrikuntzari babes eraginkorragoa: ikerketaren esparru-programa eta egitura-funtsaren erabilera koordinatzea - CREST txostenari emandako erantzuna” gaiari buruzko Kontseiluaren ondorioak, Lehiakortasun Kontseiluaren 2811. bilera, Luxenburgo, 2007ko ekainak 25. Batzordearen komunikazioa – Ikerketari eta berrikuntzari esker lehiakorrak diren Europako eskualdeak – Hazkunde handiagoa eta lanpostu gehiago eta hobeak edukitzeko ekarpena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Teknologia	2008/01/08	Adostasuna		

EK 274/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari - Malgusegurtasunaren oinarri erkideetarantz: enplegu gehiago eta hobea, malgutasunaren eta segurtasunaren bidez.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	Enplegua eta Prestakuntza	2008/01/08	Adostasuna		

EK 279/07 azkena. Liburu Zuria – Elikadura, gehiegizko pisua eta obesitatearekin lotutako osasun-problemei buruzko estrategia europarra.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Osasuna	Osasun publikoa	2008/01/08	Adostasuna		
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Hezkuntza Berrikuntza	2008/01/12	Zuzenketak	3	3

EK 295/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Europari buruz elkartean komunikatzea. Batzordearen lankidetzaren dokumentua – Erakundeen arteko akordio-proposamena Europari buruz elkartean komunikatzeaz Batzordearen komunikazioa – Europari buruz komunikatzea Interneten. Herritarrei parte harraraztea.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Euskadiren ordezkaritza Bruselan	2008/03/05	Adostasuna		

EK 308/07 azkena. Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea: bultzada bat Europako eskualdeen arteko lankidetzarentzat

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/05/21	Adostasuna		

EK 309/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Eskualde ultraperiferikoentzako estrategia: lorpenak eta itxaropenak.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/03/04	Adostasuna		

EK 313/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari – Europar Batasuneko ur-eskasiari eta lehorteari aurre egitea

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Barne Arazoak	Larrialdien Arreta	2008/01/08	Adostasuna		
Ingurumena	Urak	2008/01/08	Erantzunik ez		

EK 331/07 azkena. Eskualdeetako Komitearen ebazpena 2008ko udaberriko Europako Kontseiluarentzat. Hazkunde eta enplegurako estrategia. "Lisboako paradoxa"ri ekiteko modua.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Euskadiren ordezkaritza Bruselan	2008/01/08	Adostasuna		

EK 336/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari: terrorismoaren kontrako borroka areagotzea. Kontseiluaren esparru-erabakiaren proposamena, terrorismoaren kontrako borrokaren 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/475/JAI esparru-erabakia aldatzen duena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Barne Arazoak	Kabinetea	2008/05/28	Zuzenketak	10	10
Barne Arazoak	Kabinetea	2008/09/09	Adostasuna		

EK 344/07 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari, Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari - Gizarte-babesa berritzea, gizarte-justizia areagotzeko eta ekonomia-kohesioa indartzeko: lan-merkatutik urrutien dauden pertsonen inklusio aktiboa sustatzea

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	Enplegua eta Prestakuntza	2008/05/21	Erantzunik ez		
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Herritarren parte-hartzea	2008/05/21	Zuzenketak	4	3

EK 003/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari, Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Helduen Ikaskuntzari buruzko Ekintza Plana – Beti da ikasteko garai ona.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Etengabeko Ikaskuntza	2008/03/04	Zuzenketak	5	4

EK 004/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2002/21/CE zuzentaraua aldatzen duena – komunikazio elektronikoaren sareak eta zerbitzuak erregulatzeko esparru bateratu bati buruzkoa–, 2002/19/CE zuzentaraua –komunikazio-sare elektronikoak eta lotutako baliabideak atzitzeari eta elkarri konektatzeari buruzkoa–, eta 2002/20/CE zuzentaraua –komunikazio-sare eta -zerbitzu elektronikoak baimentzeari buruzkoa–. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2002/22/CE zuzentaraua aldatzen duena –komunikazio-zerbitzu eta -sare elektronikoaren zerbitzu unibertsalari eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoa–, 2002/58/CE zuzentaraua –komunikazio elektronikoaren arloan datu pertsonalak tratatzeari eta intimitatea babesteari buruzkoa–, eta 2006/2004 araudia (CE), kontsumitzaileak babesteko lankidetzari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren arau-proposamena, Komunikazio Elektronikoaren Merkatuko Europar Agintaritza sortzen duena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari –Dibidendu digitalaren abantailak osorik aprobetxatzea Europan: digitalizazioaren ondorioz askatutako espektroa erabiltzeko planteamendu bateratua.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakariordetza	Administrazio Elektronikoa	2008/05/21	Adostasuna		

EK 005/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari - 2010 Ekimen Europarra, e-inklusioaren alde - "Informazio-gizartean parte hartzea". Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – XXI. menderako zibergaitasunak: lehiakortasuna, hazkundera eta enplegua sustatzea.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Berrikuntza eta Informazio Gizartea	2008/03/04	Zuzenketak	3	3

EK 006/08 azkena. Eleaniztasuna

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Euskararen Sustapena	2008/05/21	Zuzenketak	1	1
Lehendakaritza	Euskadiren ordezkari-Bruselan	2008/05/23	Zuzenketak	5	5

EK 009/08 azkena. Europako Batzordearen 2007-2010 estrategia-dokumentua, Demokrazia eta Giza Eskubideen Aldeko Europar Tresnak (DGEET) finantzatutako programentzat, eta eranskinak (2007-2010 DGEETren aurrekontuko diru-izendapenak)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Giza Eskubideak	2008/05/21	Adostasuna		

EK 016/08 azkena. Batzordearen komunikazioa: “Aurrekontua erreformatzea, Europa aldatzea – 2008/2009an aurrekontua berrikusteari buruzko kontsulta publikoa”

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/03/17	Zuzenketak	2	1

EK 021/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2003/54/CE zuzentaraua aldatzen duena, elektrizitatearen barne merkatuko arau orokorreari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2003/55/CE zuzentaraua aldatzen duena, gas naturalaren barne merkatuko arau orokorreari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren araudi-proposamena, Energia Erregulatzailen Lankidetzaren Agentzia sortzen duena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren araudi-proposamena, 1228/2003 araudia (CE) aldatzen duena, elektrizitatearen mugaz gaindiko merkataritzak sarea atzitzeko baldintzei buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren araudi-proposamena, 1775/2005 araudia (CE) aldatzen duena, gas naturalaren garraio-sareak atzitzeari buruzkoa.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Energia eta Meatzeak	2008/03/04	Adostasuna		
EEE	-----	2008/03/17	Adostasuna		

EK 022/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Itsas politika integratu bat Europar Batasunarentzat

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Garraioa eta Herri Lanak	Garraioak	2008/03/04	Zuzenketak	1	1

EK 023/08 azkena. Liburu Berde baten alde – Mendiaren aldeko Erkidegoko politika baterantz: mendiguneen ikuspegi europar bat

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/03/04	Zuzenketak	0	

EK 024/08 azkena. Liburu Zuria – Osasunaren alde elkarrekin: EBrako planteamendu estrategikoa (2008-2013)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Osasuna	Osasun publikoa	2008/03/04	Adostasuna		

EK 057/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erabaki-proposamena, Pobreziaren eta Gizarte Esklusioaren kontrako Urte Europarrari buruzkoa (2010)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Gizarteratzea	2008/05/27	Erantzunik ez		

EK 058/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Kontratazio aurrekomertziala: berrikuntza sustatzea, Europari kalitatezkoak eta iraunkorrak diren zerbitzuak emateko.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Ondarea eta Kontratazioa	2008/09/09	Zuzenketak	1	0

EK 059/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – “Mugikortasuna, enplegu gehiagorako eta hoberako tresna: Lan Mugikortasunaren Ekintza Plan Europarra (2007-2010)”

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Enplegua eta Prestakuntza	2008/09/09	Erantzunik ez		

EK 070/08 azkena. Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen irizpen-proiektua, “Klusterrak eta klusterren politika” gaiari buruzkoa

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Plangintza eta Estrategia	2008/05/21	Adostasuna		

EK 078/08 azkena. Batzordearen txostena – Batasuneko hiritartasunari buruzko bosgarren txostena (2004ko maiatzak 1 – 2007ko ekainak 30)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Giza Eskubideak	2008/09/09	Adostasuna		

EK 088/08 azkena. Batzordearen komunikazioa – Batasunaren agenda, merkantzien garraioari buruzkoa: eraginkortasuna, integrazioa eta iraunkortasuna indartzea Europan. Batzordearen komunikazioa – Merkantzien garraioaren eta logistikaren ekintza-plana. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari: merkantziak lehenesten dituen trenbide-sare baterantz.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Garraioa eta Herri Lanak	Garraioak	2008/09/09	Zuzenketak	2	2

EK 093/08 azkena. Tokiko eta eskualdeko erakundeek zabalkunde-prozesuan parte hartzearen balio erantsia.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/10/28	Adostasuna		

EK 094/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari, “Ingurune digitaleko alfabetizazio mediatikoaren planteamendu europarra”ri buruzkoa. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari, “Merkatu bakarrean linean dauden eduki sortaileak” gaiari buruzkoa.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Berrikuntza eta Informazio Gizartea	2008/09/09	Adostasuna		

EK 133/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erabaki-proposamena, Sormenaren eta Berrikuntzaren 2009 Urte Europarrari buruzkoa.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Hezkuntza Berrikuntza	2008/06/23	Zuzenketak	2	2
---	--------------------------	------------	------------	---	---

EK 134/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari – Auzotasun politika europar sendoa

Saila/Erakundea	Zuzendaritza	Bidalitako data	Erantzun-mota	Aurkeztuak	Onartuak
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/09/09	Adostasuna		

EK 143/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari – Mendebaldeko Balkanak: europar ikuspegia indartzea. COM (2008) 127 azkena.

Saila/Erakundea	Zuzendaritza	Bidalitako data	Erantzun-mota	Aurkeztuak	Onartuak
Lehendakaritza	Europako Gaiak	2008/10/28	Adostasuna		

EK 144/08 azkena. EB, garapenerako bazkide globala – Milurteko Garapen Helburuetara iristeko aurrerapausoak azkartzea. COM (2008) 177

Saila/Erakundea	Zuzendaritza	Bidalitako data	Erantzun-mota	Aurkeztuak	Onartuak
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Garapenerako Lankidetzak	2008/10/28	Adostasuna		

EK 149/08 azkena. Nazio- eta eskualde-mailako gobernantza eta elkartea, eta proiektuen oinarria eskualde-politikaren esparruan

Saila/Erakundea	Zuzendaritza	Bidalitako data	Erantzun-mota	Aurkeztuak	Onartuak
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Kupoa eta Finantza Ekarpenak	2008/09/01	Zuzenketak	2	2
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	Kabinetea	2008/09/09	Erantzunik ez		
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Ekonomia eta Plangintza	2008/09/09	Erantzunik ez		

EK 159/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Industria-emisioen politika hobetzea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, industria-emisioei buruzkoa (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak).

Saila/Erakundea	Zuzendaritza	Bidalitako data	Erantzun-mota	Aurkeztuak	Onartuak
Ingurumena	Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrola	2008/09/09	Adostasuna		

EK 160/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari

buruzkoa.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Energia eta Meatzeak	2008/09/09	Erantzunik ez		

EK 161/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2003/87/CE zuzentaraia aldatzen duena, negutegi-efektuko gasen Emisio Eskubideen Erkidegoko Araubidea hobetzeko eta zabaltzeko.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Ingurumena	Ingurumen kalitatea	2008/09/09	Zuzenketak	2	2

EK 162/08 azkena. Kontseiluaren araudi-proposamena, nekazaritza-politika erkideko laguntza zuzeneko araubideei aplikatzeko xedapen erkideak finkatzen dituena, eta nekazariari laguntzeko araubide zehatzak ezartzen dituena. Kontseiluaren araudi-proposamena, 320/2006, 1234/2007, 3/2008 eta (...)/2008 araudiak (CE) aldatzen dituena, Nekazaritza Politika Erkidea moldatzeko.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	Nekazaritza eta Abeltzaintza	2008/09/16	Adostasuna		

EK 173/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendio-proposamena, Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan Kalitatea Bermatzeko Erreferentzia Esparru Europar bat ezartzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendio-proposamena, Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan kreditu-sistema europarra sortzeari buruzkoa (ECVET)

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	Etengabeko ikaskuntza	2008/09/09	Adostasuna		

EK 174/08 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erabaki-proposamena, Internet eta beste komunikazio-teknologiak erabiltzerakoan haurrak babesteko urte anitzeko Erkidegoko programa bat ezartzen duena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Gizarte Ongizatea	2008/09/09	Adostasuna		

EK 177/08 azkena. Etorkizuneko asilo-sistema europar bateratuari buruzko Liburu Berdea. Kontseiluaren zuzentarau-proposamena,

2003/109/CE zuzentaraua aldatzen duena, bere aplikazio-eremua zabaltzeko nazioarteko babesaren onuradunei.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Immigrazioa	2008/02/01	Zuzenketak	1	1

EK 210/08 azkena. Immigrazio-politika bateratua. COM (2007) 780 azkena. Emigrazio-politika bateratua Europarentzat: oinarriak, neurriak eta tresnak. COM (2008) 359 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Immigrazioa	2008/10/28	Zuzenketak	4	1

EK 241/08 azkena. Eskualdeek nola lagun dezaketen EBko helburuak lortzen klima-aldaketaren arloan, alkateen arteko ituna azpimarratuz EL 241/2008 berrik. 1

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Energia eta Meatzeak	2008/10/28	Adostasuna		
Ingurumena	Ingurumen kalitatea	2008/10/28	Adostasuna		

EK 245/08 azkena. Hazkunde eta enplegurako Lisboako estrategia

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Ekonomia eta Plangintza	2008/10/27	Adostasuna		
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Teknologia	2008/10/28	Zuzenketak	2	2
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Enplegua eta Prestakuntza	2008/10/28	Adostasuna		

EK 251/08 azkena. Presidentetza frantsesaren kontsulta gai honi buruz: "Kulturen arteko integrazio- eta elkarrizketa-politika: tokiko eta eskualdeko erakundeen papera"

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Kabinetea	2008/10/28	Adostasuna		
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Immigrazioa	2008/10/28	Zuzenketak	1	1

EK 252/08 azkena. Kontseiluaren gomendio-proposamena, gazte boluntarioak European mugitzeari buruzkoa. COM (2008) 424 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Kultura	Gazteria eta Erkidegoko Ekintza	2008/10/28	Erantzunik ez		

EK 254/08 azkena. Informazio- eta komunikazio-teknologiaren bidez energia-eraginkortasunari ekitea. COM (2008) 241 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Energia eta Meatzeak	2008/10/28	Adostasuna		

EK 255/08 azkena. XXI. mendeko gaitasunak hobetzea: europar lankidetzari buruzko agenda eskoletan. COM (2008) 425 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Etengabeko ikaskuntza	2008/11/28	Adostasuna		

EK 273/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Ekonomia- eta gizarte-kohezioaren bosgarren egoeraxostena. Eskualdeak hazten eta Europa hazten. COM (2008) 371 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	Kabinetea	2008/10/28	Zuzenketak	1	0
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Kupoa eta Finantza Ekarpinak	2008/10/28	Adostasuna	0	0
Ogasuna eta Herri Administrazioa	Ekonomia eta Plangintza	2008/10/28	Adostasuna		
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	Azterlan eta Araubide Juridikoa	2008/10/28	Adostasuna		

EK 283/08 azkena. Kontseiluaren araudi-proposamena, Europako Ikerketa Azpiegituren (ERI) zuzenbide-esparruari buruzkoa – COM (2008) 467 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari – Ikerketa-programazio bateraturantz: elkarrekin lan egitea, denon arazoei modu eraginkorragoan ekiteko. COM (2008) 468 azkena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Industria, Merkataritza eta Turismoa	Teknologia	2008/10/28	Zuzenketak	2	2

EK 296/08 azkena. Batzordearen komunikazioa Europako Kontseiluari, Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Komiteari, migrazio zirkularrari buruz eta mugikortasun-elkarteei buruz Europar Batasunaren eta hirugarren herrialdeen artean. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, zigorrak finkatzen dituena hirugarren herrialdeetako legez-kanpoko langileak hartzen dituzten enpresaburuentzat. Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, kalifikazio handiko enpleguetarako hirugarren herrialdeetako langileen sarrera- eta bizileku-baldintzei buruzkoa. Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, hirugarren herrialdeetako langileek estatu kide batean bizi eta lan egiteko baimen bakar bat eskuratzeko eskaera bakar baten prozedura finkatzen duena, eta estatu kide batean legez bizi diren hirugarren herrialdeetako langileen eskubide-oinarri bateratu bat sortzen duena.

<u>Saila/Erakundea</u>	<u>Zuzendaritza</u>	<u>Bidalitako data</u>	<u>Erantzun-mota</u>	<u>Aurkeztuak</u>	<u>Onartuak</u>
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Immigrazioa	2008/04/04	Adostasuna		